

Oporretan

–Arratsalde on, Nassim!

–Hepa, Gabriela! Zer moduz?

–Ederki! Hementxe nago, kanpinean, familiarekin.

–Bai, ikusten dut. Denak zaudete!

–Bai, denok gaude hemen: gurasoak mahaia prestatzen ari dira eta aitona Foxyrekin jolasten ari da.

–Eta Aimar ere hor dago, zure atzean. Zertan ari da? Bazkaria prestatzen ari da?

–Aimar bazkaria prestatzen? Kar-kar-kar! Ez, ez, ez; ez da bazkaria prestatzen ari. Aimar txorizoa lapurtzen ari da!

–Aaa! Kar-kar-kar!

–Eta zuek zer? Amonaren herrian zaudete, ezta?

–Bai, amonaren herrian gaude, bai!

–Eta zer da zarata hori? Motor bat entzuten dut: brrr!

–A, aitona Joxe Mari da. Hementxe dago, nire ondoan!

–A! Eta hortzak garbitzen ari da hortzetako eskuila elektrikoarekin?

–Kar-kar! Ez, ez da hortzak garbitzen ari; bizarra egiten ari da bere makina zaharrarekin! Kar-kar!